

## **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2006/7/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA  
KONTSEILUARENA, 2006ko otsailaren 15ekoa, bainatzeko uraren kalitatea kudeatzeari buruzkoa  
eta 76/160/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/7/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de febrero de 2006, relativa a la gestión de la calidad de las aguas de baño y por la que se deroga la Directiva 76/160/CEE*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 64 de 4/3/2006*)

2006/7/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko otsailaren 15ekoa,

bainatzeko uraren kalitatea kudeatzeari buruzkoa eta 76/160/EEE Zuzentaraua indargabetzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Ituna —bereziki Itunaren 175. artikulua 1. paragrafoa— aztertu dute,

baita Batzordearen proposamena ere <sup>1</sup>,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>2</sup>,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute <sup>3</sup>,

Itunaren 251. artikuluan <sup>4</sup>ezarritako prozedurari jarraiki, Adiskidetzeko Komiteak 2005eko abenduaren 8an onaturiko testu bateratua aztertuta,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Garapen iraunkorrari buruzko Batzordearen Komunikazioan oinarrituta, Europako Kontseiluak zenbait helburu nabarmendu zituen orientabide orokor gisa lehentasuneko eremuetan etorkizunari begira ebaluatzeko, hala nola baliabide naturalen eta osasun publikoaren eremuetan.

(2) Baliabide natural urria da ura, eta haren kalitatea babestu, defenditu, kudeatu eta halakotzat tratatu behar dugu. Azaleko urak, bereziki, baliabide berriztagarriak dira, leheneratzeko ahalmen mugatua dutenak gizarte jardueraren eragin negatiboak direla eta.

(3) Ingurumenari buruzko Erkidegoaren politikak babes-maila handia izan behar du helburutzat, eta ingurumenaren kalitatea zaindu, babestu eta hobetzeko eta giza osasuna babesteko helburuak lortze aldera laguntzea.

(4) 2000ko abenduaren 4an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Komunikazio bat onartu zuen Batzordeak, bainatzeko uren politika berri bat lantzeari buruzkoa, eta alderdi interesdunei

zuzenduriko kontsulta zabal bati ekin zion. Kontsulta horren emaitza nagusia zera izan zen, Zuzentarau berria lantzeari buruzko adostasun orokorra, betiere azken proba zientifikoetan oinarritzen bada eta herritarren parte-hartze handiagoa azpimarratzen badu.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1600/2002/EE Erabakiak, 2002ko uztailaren 22koak, Ingurumenaren arloan Erkidegoko Seigarren Ekintza Programa ezartzen duenak <sup>5</sup>, bainatzeko uren babes-maila handia bermatzeko konpromisoa jasotzen du, Kontseiluaren 76/160/EEE Zuzentaraua —1975eko abenduaren 8koa da, bainatzeko uren kalitateari buruzkoa <sup>6</sup>— berriz aztertzea bilduta.

(6) Itunari jarraiki, ingurumenaren arloan dagokion politika lantzerakoan eskuragarri dauden datu zientifiko eta teknikoak hartu beharko ditu kontuan, besteak beste, Erkidegoak. Zuzentarau honek proba zientifikoak jaso behar ditu parametro adierazle fidagarrienak aplikatzeko, osasunerako arrisku mikrobiologikoak aurreikustea eta babes-maila handia lortzea ahalbidetzen dutenak. Premiaz egin behar dira gainera azterketa epidemiologiko gehigarriak, bainuari loturiko osasunerako arriskuei buruzkoak, batez ere ur gezari dagozkionak.

(7) Eraginkortasuna areagotu eta baliabideak al bait hobekien erabiltzeko, koordinazio estua ezarri beharko da Zuzentarauaren eta uraren arloko Erkidegoaren gainerako legediaren artean, hala nola Kontseiluaren 91/271/EEE Zuzentaraua —1991ko maiatzaren 21ekoa da, hiriko hondakinen uren tratamenduari buruzkoa <sup>7</sup>—, Kontseiluaren 91/676/EEE Zuzentaraua —1991ko abenduaren 12koa da, nekazaritzan erabilitako nitratoek eragindako kutsaduratik urak babesteari buruzkoa <sup>8</sup>— eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaraua —2000ko urriaren 23koa da, uren politikaren eremuan jarduteko Erkidegoko esparrua ezartzen duena <sup>9</sup>—.

<sup>1</sup> EO C 45 E, 2003.2.25ekoa, 127. or.

<sup>2</sup> EO C 220 E, 2003.9.16koa, 39. or.

<sup>3</sup> EO C 244 E, 2003.10.10ekoa, 31. or.

<sup>4</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2003ko urriaren 21ekoa. (EO C 82 E, 2004.4.1ekoa, 115. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2004ko abenduaren 20koa (EO C 111 E, 2005.5.11koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2005eko maiatzaren 10ekoa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea). Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpena, 2006ko urtarrilaren 18koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2005eko abenduaren 20koa.

<sup>5</sup> EO C 242 E, 2002.9.190ekoa, 1. or.

<sup>6</sup> EO L 31, 1976.2.5ekoa, 1. or. Azken buruan 807/2003 Erregelamenduak [EE] (EO L 122, 2003.5.16koa, 36. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

<sup>7</sup> EO L 135, 1991.5.30ekoa, 40. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak [EE] (EO L 284, 2003.5.16koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

<sup>8</sup> EO L 375, 1991.12.31ekoa, 1. or. 1882/2003 Erregelamenduak [EE] aldatu zuen Zuzentaraua.

<sup>9</sup> EO L 327, 2000.12.22koa, 1. or. 2455/2001/EE Erabakiak (EO L 331, 2001.12.15ekoa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

8) Alderdi interesdun guztiei informazioa zabaldu behar zaie aurreikusitako neurriei buruz eta horiek aplikatzeari begira izandako aurrerapausoei buruz. Jendeak dagokionean jaso behar du informazio egokia bainatzeko uren kalitate-kontrolaren emaitzei eta arriskuak kontrolatzeko neurriei buruz, osasunerako arriskuak prebenitzeko, batez ere iraupen laburreko kutsadurari edo egoera anomaloiei buruz. Teknologia berriak baliatu behar dira, jendeari eraginkortasunez informatzea ahalbidetzen baitute, Erkidego osoko bainatzeko urei buruzko datu konparatiboekin.

(9) Kontrolari dagokionez, azterketako praktika eta metodo harmonizatuak aplikatu behar dira. Kalitatea aldi zabal batean behatu eta ebaluatu behar da bainatzeko uren sailkapen errealista lortzeko.

(10) Kudeaketako neurri egokietan eta kalitate-bermeetan oinarritu behar da adostasuna, eta ez ditu neurketak eta kalkuluak soilik bildu behar. Horrenbestez, bainatzeko uren profilen sistema bat da egokia, arriskuak hobeto ulertzea ahalbidetzen duena, kudeaketa-neurrientzako oinarri gisa. Horretaz gain, arreta berezia eskaini behar zaio kalitate-arauak zaintzeari eta 76/160/EEE Zuzentarauarekin trantsizioa koherentea izateari.

(11) 2005eko otsailaren 17an, Erkidegoak CEPE/NBE Hitzarmena berretsi zuen informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzerakoan jendearen parte-hartzeari eta ingurumenaren arloan justizia baliatzeari (Aarhus Hitzarmena) buruz. Horrenbestez, komeni da Zuzentarau honek barnean hartzea jendeak informazioa eskuratzeari buruzko xedapenak eta jendearen parte-hartzea aurreikustea aplikatzerakoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/4/EE Zuzentaraua —ingurumenaren arloko informazioa jendeak eskuratzeari buruzkoa<sup>1</sup>— eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/35/EE Zuzentaraua —2003ko maiatzaren 26koa, ingurumenarekin loturiko plan eta programa jakinak lantzerakoan jendea parte hartzeko neurriak ezartzen dituen<sup>2</sup>— osatzeko.

(12) Kontuan izanda Zuzentarau honen helburuak —hots, Estatu kideek, arau erkideetan oinarrituta, bainatzeko urek kalitate ona eta Erkidego osoan babes-maila handia izatea lortzea— Estatu kideek behar den moduan lortu ezin eta Erkidego osorako hobeto lor daitezkeenez, neurriak har ditzake Erkidegoak berak, Itunaren 5. artikuluan bilduriko subsidiaritatearen printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasunaren printzipioari jarraiki, Zuzentarau hau ez doa beharrezkoaz haraindi helburu horiek lortzeko.

(13) Zuzentarau hau aplikatzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren —1999ko ekainaren 28koa da, eta Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu<sup>3</sup>— arabera onartu behar dira.

<sup>1</sup> EO C 41 E, 2003.2.14koa, 26. or.

<sup>2</sup> EO C 156 E, 2003.6.25ekoa, 17. or.

<sup>3</sup> EO C 184 E, 1999.7.17koa, 23. or.

(14) Bainatzeko uren arloan Erkidegoaren politikak duen garrantzi nabarmenaren adierazgarri da baimendebordaldi bakoitza, jendea Erkidegoko bainatzeko zonetan edo horien inguruetan isuritako kutsadura ezbeharrezko eta kronikotik babesten duen neurrian. Bainatzeko uren kalitate orokorra nabarmen hobetu da 76/160/EEE Zuzentaraua indarrean hasi denetik. Dena den, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasierako jakintzen eta esperientziaren adierazgarri da Zuzentarau hori. Bainatzeko urei buruzko portaera-jarraibideek bilakaera izan dute orduz geroztik, jakintza zientifiko eta teknikoek bezalaxe. Horrenbestez, 76/160/EEE Zuzentaraua indargabetu behar da.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua

#### Helburua eta aplikazio-eremua

1. Honako hauei buruzko xedapenak ezartzen ditu Zuzentarau honek:

a) bainatzeko uren kalitatearen kontrola eta sailkapena;

b) bainatzeko uren kalitatearen kudeaketa;

c) jendeari informazioa ematea bainatzeko uren kalitateari buruz.

2. Ingurumenaren kalitatea zaindu, babestu eta hobetzea eta giza osasuna babestea du helburutzat Zuzentarau honek, 2000/60/EE Zuzentaraua osatuta.

3. Zuzentarau hau azaleko ur guztietan aplikatuko da, baldin eta agintaritze eskudunek jende ugari bainatuko dela aurreikusten badute eta bainatzeko debeku iraunkorrik ez badago edo ur horietan (aurrerantzean «bainatzeko urak» deituko diegu) ez bainatzeko gomendio iraunkorrik eman ez bada. Honako hauei, aldiz, ez zaie aplikatuko:

a) igeriketarako igerilekuak eta ur termalak;

b) tratamendupeko edo helburu terapeutikoekin erabilitako ur itxiak, eta

c) artifizialki itxitakoak izaki eta azaleko uretatik eta lurrazpiko uretatik bereizitako urak.

#### 2. artikulua

#### Definizioak

Zuzentarau honi dagokionez, honako definizio hauek aplikatuko dira:

1) «azaleko urak», «lurrazpiko urak», «ur

kontinentalak», «trantsizio-urak», «kostaldeko urak» eta «arro hidrografikoa» esapideek 2000/60/EE Zuzentarauan duten esanahi bera izango dute;

2) honako hau hartuko da «agintaritza eskudun»tzat: Estatu kide batek izendatu duen/dituen agintaria edo agintariak Zuzentarrak honen eskakizunak betetzeko, edo eginkizun hori eskuordetzan eman zaion beste edozein agintari edo erakunde;

3) bainatzea debekatzeari edo ez bainatzeko gomendioari dagokionez, honako hau hartuko da «iraunkor»tzat: bainu-denboraldi oso bati dagokion iraunaldia gutxienez;

4) bainulariei dagokionez, honako hau hartuko da «ugari»tzat: agintaritza eskudunak kopuru handitza hartzen duena, betiere, eta bereziki, iraganeko jarraibideak edo emandako edozein azpiegitura edo instalazio kontuan izanda, edo beste edozein neurri, bainua sustatze aldera;

5) honako hau hartuko da «kutsadura»tzat: kutsadura mikrobianoa edo beste organismo edo hondakinena izatea, betiere bainatzeko uren kalitatea eraginpean hartu eta bainularien osasunarentzat arriskua badakarte, 8. eta 9. artikuluetan eta I. eranskinaren A zutabearen aurreikusitakoaren arabera;

6) bainulari ugari izango direla aurreikus daitekeen aldia hartuko da «bainu-denboraldi»tzat;

7) bainatzeko urei aplikaturiko honako neurri hauek hartuko dira «kudeaketa-neurri»tzat:

a) bainatzeko uren profilak ezarri eta atxikitzea;

b) kontrol-egutegi bat ezartzea;

c) bainatzeko urak kontrolatzea;

d) bainatzeko uren kalitatea ebaluatzea;

e) bainatzeko urak sailkatzea;

f) bainatzeko urak eta bainularien osasuna eraginpean har ditzaketen kutsadura-arrazoiak zehaztu eta ebaluatzea;

g) jendeari informazioa ematea;

h) bainulariak kutsaduraren esposiziopean egotea saihesteko neurriak hartzea;

i) kutsadura-arriskua gutxitzeko neurriak hartzea;

8) honako hau hartuko da «iraupen laburreko kutsadura»tzat: I. eranskinaren A zutabearen bilduriko kutsadura mikrobianoa, betiere hura eragin duten arrazoiak argi eta garbi identifikagarriak badira, eta normalean aurreikusten bada gehienez ere 72 orduz eragingo duela uraren kalitatean bainatzeko uren kalitatea erasanda izan den lehen unetik zenbatzen hasita, eta agintaritza eskudunak horretarako iragarpen- eta kudeaketa-prozedurak ezarri baditu II. eranskinaren ezarritakoari jarraiki;

9) honako hau hartuko da «egoera anomalo»tzat: dagokion lekuko bainatzeko uren kalitatea eraginpean hartzen duen gertakari bat edo gertakarien konbinazio bat, betiere aurreikus daitekeen haren maiztasuna gehienez ere lau urtean behin bada;

10) 3. artikuluan xedaturikoari jarraiki lorturiko datuak hartuko dira «bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sorta»tzat;

11) II. eranskinaren definituriko ebaluazio-metodoaren araberako bainatzeko uren kalitatearen ebaluazio-prozesua hartuko da «bainatzeko uren kalitatearen ebaluazio»tzat;

12) alga-loraketaren, zenobioen edo bitsaren bidezko zianobakterioen metaketa hartuko da «zianobakterioen ugaltze»tzat;

13) «jende interesduna» esapideak Kontseiluaren 85/337/EEE Zuzentarauan —1985eko ekainaren 27koa da, proiektu publiko eta pribatu jakinek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzkoa<sup>1</sup>— ematen zaion esanahi bera izango du.

## II. KAPITULUA

### BAINATZEKO UREN KALITATEA ETA KUDEAKETA

#### 3. artikulua

#### Kontrolak

1. Estatu kideek urtero zehaztuko dituzte bainatzeko ur guztiak eta bainu-denboraldiaren iraupena definituko dute. Betiere, 2008ko martxoaren 24aren ondorengo lehen bainu-denboraldia hasi aurretik ekingo diote horri.

2. I. eranskinaren zutabearen aurkezturiko parametroen kontrola IV. eranskinaren xedaturikoaren arabera egingo dela bermatuko dute Estatu kideek.

3. Aurreikuspenen arabera, bainatzeko uren kontrola egingo da

a) bainulari gehien dagoen tokian;

b) kutsadura-arrisku handiena duten tokietan, betiere bainatzeko uren profila kontuan izanda.

4. Bainu-denboraldi bakoitzaren hasieran —eta lehen aldiz Zuzentarrak hau indarrean hasi eta geroko hirugarren bainu-denboraldia hasi aurretik— kontrol-egutegi bat ezarriko da bainu-zona bakoitzerako. Kontrol-egutegian ezarritako egunetik gehienez ere lau egunera egin beharko da kontrola.

<sup>1</sup> EO L 175, 1985.7.5ekoa, 40. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 35/2003 Erregelamenduak (EO L 156, 2003.6.25ekoa, 17. or.) aldatu zuen Zuzentarrak.

5. Estatu kideek I. eranskinaren A zutabearen ezarritako parametroen kontrolak sartu ahal izango dituzte Zuzentarau hau indarrean hasi eta geroko lehen bainu-denboraldi osoan. Kasu horretan, IV. eranskinean zehazturiko maiztasunarekin eramango dira aurrera kontrolak. Kontrol horien emaitzak 4. artikulua jorratzen dituen bainatzeko uren kalitateari buruzko datuen sortak osatzeko erabili ahal izango dira. Estatu kideek Zuzentarau honen arabera kontrolak sartzen dituzten bezain laster, 76/160/EEE Zuzentaruaren eranskinean agertzen diren parametroak bertan behera geratu ahal dira.

6. Iraupen laburreko kutsadura batean lorturiko laginak baztertu ahal dira. Horien ordez, IV. eranskinari jarraiki lorturiko laginak jarriko dira.

7. Egoera anomaloetan, 4. paragrafoak aipatzen duen kontrol-egutegia eten ahal da. Kontrola al bait lasterren hasiko da berriz, behin egoera anomaloa amaitu ondoren. Lagin berriak lortuko dira al bait lasterren behin egoera anomaloa amaitu ondoren, egoera hori dela-eta atzera botatakoen ordez.

8. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote kontrol-egutegiaren edozein etenaldi, arrazoiak adierazita. 13. artikuluan aurreikusitako hurrengo urteko txostena dela-eta aurkeztuko dituzte jakinarazpen horiek, beranduenez ere.

9. Estatu kideek bermatuko dute bainatzeko uren kalitatearen analisia I. eranskinean zehazturiko erreferentziako metodoen eta V. eranskinean aurreikusitako arauen arabera egitea. Dena den, Estatu kideek bestelako metodoak edo arauak erabiltzea baimendu ahal da, betiere froga badezakete lorturiko emaitzak baliokideak direla I. eranskinean zehazturiko metodoekin eta V. eranskinean aurreikusitako arauekin lortutako emaitzekiko. Metodo edo arau baliokide horiek erabiltzea baimentzen duten Estatu kideek dagokion informazio guztia eman beharko diote Batzordeari erabilitako metodo eta arauak eta horien baliokidetasunari buruz.

#### 4. artikulua

##### **Bainatzeko uren kalitatearen ebaluazioa**

1. Estatu kideek bermatuko dute bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortak biltzea, I. eranskinaren A zutabearen agertzen diren parametroen kontrolari buruz.

2. Bainatzeko uren kalitatearen ebaluazioa egingo da:

a) bainatzeko ur bakoitzarentzat;

b) bainu-denboraldi bakoitza amaitzean;

c) kontuan harturiko denboraldiari eta aurreko hiruei buruz jasotako bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortaren arabera, eta

d) II. eranskinean deskribaturiko prozedurari jarraiki.

Dena den, Estatu kideek erabaki ahal dute bainatzeko uren kalitatearen ebaluazio bat egitea, aurreko hiru bainu-denboraldiei soil-soilik dagokienez jasotako bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortaren arabera. Hala erabakitzen badute, Batzordeari jakinarazi beharko diote alde aurretik. Ondoren beste ebaluazio bat egitea erabakitzen badute lau bainu-denboraldiren arabera, hori ere Batzordeari jakinarazi beharko diote. Bost urtean behin soilik aldatu ahal izango dute ebaluazioaldia Estatu kideek.

3. Bainatzeko uren kalitatea ebaluatzeko erabilitako bainatzeko uren buruzko datu sortek betiere 16 lagin izango dituzte gutxienez, edo 12 lagin, IV. eranskinaren 2. puntuan aurreikusitako inguruabar berezietan.

4. Dena den, eta betiere,

— 3. paragrafoaren eskakizuna bete beharko da, edo

— gehienez zortzi aste dituen bainu-denboraldiko bainatzeko uren kasuan, ebaluatzeko erabilitako bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortak zortzi lagin bildu behar ditu gutxienez, eta bainatzeko uren kalitatearen ebaluazioa gutxienez lau bainu-denboraldira buruzko bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortaren gain egin ahal da, honako kasu hauetan betiere:

a) bainatzeko urak berriki zehaztu badira;

b) aldaketak izan badira bainatzeko uren sailkapena eraginpean har dezaketenak 5. artikuluari jarraiki; kasu horretan, bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sorta baten oinarriaren gain egingo da ebaluazioa, aldaketa horiek izan zirenetik jasotako laginei dagozkien emaitzak soil-soilik bilduko dituztena, edo

c) bainatzeko urak 76/160/EEE Zuzentaruaren arabera ebaluatu badituzte, Zuzentarau horren arabera lorturiko datu baliokideak erabiliko dira, eta horretarako 76/160/EEE Zuzentaruaren eranskinaren 2. eta 3. parametroak Zuzentarau honen I. eranskinaren A zutabearen 2. eta 1. parametroen baliokidetzat hartuko dira.

5. Estatu kideek egungo banatzeko urak zatitu edo elkartu ahal dituzte, bainatzeko uren kalitatearen ebaluazioak kontuan izanda. Honako kasu hauetan soilik elkartu ahal izango dituzte bainatzeko urak:

a) elkarren alboan badaude;

b) aurreko lau urteetan antzeko ebaluazioak izan badituzte, 2. eta 3. paragrafoen eta 4. paragrafoaren c) idatz-zatiaren arabera, eta

c) bainatzeko uren profilak badituzte, beren osotasunean arrisku-faktore erkideak dituztenak edo halakorik ez dituztenak.

#### 5. artikulua

### **Bainatzeko uren kalitatearen sailkapena eta egoera**

1. Laugarren artikulua arabera eginiko bainatzeko uren kalitatearen ebaluaziotik abiatuta, Estatu kideek bainatzeko urak kalitateari dagokionez sailkatuko dituzte, II. eranskinean adierazitako irizpideen arabera:

- a) «gutxiegi»;
- b) «nahikoa»;
- c) «ona», edo
- d) «bikaina».

2. Zuzentarau honen eskakizunen arabera lehen sailkapena 2015eko bainu-denboraldiaren amaierarako egingo da beranduenez ere.

3. Estatu kideek zainduko dute 2015eko bainu-denboraldiaren amaierarako bainatzeko ur guztien kalitatea gutxienez «nahikoa» izatea. Neurri errealistak eta proportziozkoak hartuko dituzte, betiere egokiak irizten dituztenak kalitate «bikain»eko edo «on»eko gisa sailkatutako bainatzeko uren kopurua areagotze aldera.

4. Hirugarren paragrafoko eskakizun orokorra gorabehera, bainatzeko urak kalitate «gutxiegi»kotzat sailkatu ahalko dira aldi baterako, eta, hala ere, Zuzentarau honen arabera izaten jarraitu. Kasu horretan, honako baldintza hauek betetzen direla zainduko dute Estatu kideek:

a) kalitate «gutxiegi»kotzat sailkatutako bainatzeko ur guztiei dagokienez, honako neurriak hartu beharko dira, uren sailkapenaren ondorengo bainu-denboralditik aurrera ondorioak izango dituztenak:

i) kudeaketa-neurri egokiak, bainatzeko debekua edo ez bainatzeko gomendioa barne hartuko dituztenak, bainulariak kutsaduraren esposiziopean egotea saihesteko,

ii) kalitate «nahiko»ko maila ez lortzea eragiten duten arrazoiak eta zioak zehaztea,

iii) neurri egokiak kutsadura-arrazoiak prebenitu, murriztu edo ezabatze, eta

iv) 12. artikuluari jarraiki, jendea seinale sinple eta argi baten bidez ohartzea, eta, gainera, jendeari informazioa ematea kutsadura-arrazoiei eta bainatzeko uren profilaren oinarriaren gain harturiko neurri buruz;

b) bainatzeko urak ondoz ondoko bost urtetan kalitate «gutxiegi» kotzat sailkatzen badituzte, bainatzeko debeku iraunkorra edo ez bainatzeko gomendio iraunkorra emango da. Dena den, Estatu kideek bainatzeko debeku iraunkorrak edo ez bainatzeko gomendio iraunkorrak eman ahalko dituzte bost urteko denboraldia baino lehen, irizten badiote

bideraezina edo neurritz kanpo garestia litzatekeela «nahikoa» kalitatea lortzea.

### *6. artikulua*

#### **Bainatzeko uren profila**

1. Estatu kideek bermatuko dute bainatzeko uren profil bat ezartzea, III. eranskinean xedaturikoaren arabera. Bainatzeko uren profil bakoitzak bainatzeko ur bakar bat edo alboko bat baino gehiago bildu ahalko ditu. Bainatzeko uren profilak 2011eko martxoaren 24an ezarriko dira lehen aldiz beranduenez.

2. Bainatzeko uren profilak III. eranskinean xedaturikoaren arabera berrikusi eta eguneratuko dira.

3. Bainatzeko uren profilak ezarri, berrikusi eta eguneratzerakoan, behar bezala erabiliko dira 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera eginiko kontrol eta ebaluazioetatik lorturiko datuak, betiere, egokiak badira Zuzentarau honi dagokionez.

### *7. artikulua*

#### **Kudeaketa-neurriak ezohiko inguruabarretan**

Estatu kideek zainduko dute kudeaketa-neurri egoki eta aproposak har daitezela ezusteko egoeren berri dutenean, betiere egoera horiek eragin kaltegarria badute —edo izan dezaketela uste bada— bainatzeko uren kalitatean eta bainularien osasunean.

Jendearentzako informazioa bilduko dute neurri horiek, eta, beharrezkoa izanez gero, baita bainatzeko debekua ere.

### *8. artikulua*

#### **Zianobakterioek eragindako arriskuak**

1. Bainatzeko uren profilak zianobakterioak ugaltzearen aldeko joera adierazten duenean, kontrol egokia gauzatuko da osasunerako arriskuak behar bezala identifikatzea ahalbidetzeko.

2. Zianobakterioak ugalduta edo osasunerako arrisku bat dagoela erabaki edo susmatzen bada, kudeaketa-neurri egokiak hartuko dira berehala, zianobakterioetarako esposizioa prebenitzeko, jendearentzako informazioa ere barnean hartuta.

### *9. artikulua*

#### **Beste parametro batzuk**

1. Bainatzeko uren profilak makroalgak edo itsas fitoplanktona ugaltzeko joera adierazten duenean, ikerketak egingo dira hori onargarria ote den eta osasunerako dituen arriskuak zehazteko, eta

kudeaketa-neurri egokiak hartuko dira, jendearentzako informazioa ere barne.

2. Bainatzeko uren begizko ikuskatzea egingo da hondakin mundruneztatuengatik kutsadura, kristal-hondakinak, plastikoa, kautxua edo bestelako hondakinak ote dauden zehazteko. Horrelako kutsadurarik aurkituz gero, kudeaketa-neurri egokiak hartuko dira, jendearentzako informazioa ere barnean hartuko dutenak, hala badagokio.

#### 10. artikulua

##### **Mugaz haraindiko uren arloko lankidetz**

Arro hidrografiko batek bainatzeko uren kalitatean mugaz haraindiko ondorioak baditu, eraginpeko Estatu kideek lankidetzan aritu beharko dute Zuzentarau hau aplikatzeko, informazioa behar bezala trukatu eta elkarrekin jardunez ondorio horiek kontrolatzeko, besteak beste.

### III. KAPITULUA

#### **INFORMAZIOA TRUKATZEA**

#### 11. artikulua

##### **Jendeak parte hartzea**

Zuzentarau hau aplikatzerakoan jendeak parte hartzea sustatuko dute Estatu kideek, eta jende interesdunak honako hauetarako aukera izatea zainduko dute:

— jendeak parte hartzeko prozesuari buruz informatzea, eta

— iradokizunak, oharra edo kexak egitea.

Bainatzeko uren zerrendak ezartzeari, berrikusteari eta eguneratzeari aplikatuko zaio hori bereziki, 3. artikulua 1. paragrafoari jarraiki. Agintaritza eskudunek behar bezala hartuko dute kontuan lorturiko informazioa.

#### 12. artikulua

##### **Jendearentzako informazioa**

1. Estatu kideek bermatuko dute ondorengo informazioa modu aktiboan zabaltzea eta bizkor eskuragarri egotea bainu-denboraldian, eta erraz baliatzeko lekuan, bainatzeko uren zona bakoitzaren inguruan:

a) bainatzeko uren indarrean dagoen sailkapena, baita artikulua honek aipatzen duen bainatzeko edozein debeku edo ez bainatzeko edozein gomendio ere, seinale edo sinbolo simple eta argi baten bidez;

b) bainatzeko uren deskribapen orokor bat, teknika ez den hizkuntzan, III. eranskinaren arabera zehazturiko bainatzeko uren profileen oinarriturikoa;

c) iraupen laburreko kutsaduraren esposiziopeko bainatzeko uren kasuan:

— bainatzeko urak iraupen laburreko kutsaduraren esposiziopean daudela adierazten duen jakinarazpena,

— aurreko bainu-denboraldian bainua zenbat egunez debekatu zen edo ez bainatzea zenbat egunez gomendatu zen adieraztea, betiere kutsadura horren ondorioz, eta

— ohar bat kutsadura hori aurreikusi bada edo gertatzen ari bada;

d) gorabehera horietan egoera anomaloen nondik norakoari eta aurreikusitako iraupenari buruzko informazioa;

e) bainua debekatzen den edo ez bainatzea gomendatzen den bakoitzean, ohar bat jendeari informazioa emateko, arrazoiak bertan adierazita;

f) bainatzeko debeku iraunkorra edo ez bainatzeko gomendio iraunkorra ematen bada, eraginpeko zonaren urek bainatzeko urak izateari utzi diotela biltzen duen informazioa, arrazoiak adierazita, eta

g) iturriei buruzko azalpen bat informazio osoagoa lortze aldera, 2. paragrafoaren arabera.

2. Estatu kideek bitarteko eta teknologia egokiak baliatuko dituzte, Internet barne, modu aktiboan eta atzerapenik gabe zabaltzeko 1. paragrafoak aipagai duen bainatzeko uren buruzko informazioa, baita honako informazio hau ere, hainbat hizkuntzatan, hala badagokio:

a) bainatzeko uren zerrenda;

b) bainatzeko ur guztien sailkapena azken hiru urteetan eta bainatzeko uren profila, Zuzentarau honen arabera eginiko kontrolen emaitza ere barnean hartuta, azken sailkapenetik hasita;

c) kalitate «gutxiegi»kotzat sailkatutako bainatzeko uren kasuan, kutsaduraren arrazoiak, eta kutsadurarekiko bainularien esposizioa saihesteko eta 5. artikulua 4. paragrafoak ezartzen duenari jarraiki kutsaduraren arrazoiak eteteke harturiko neurriei buruzko informazioa, eta

d) iraupen laburreko kutsaduraren esposiziopeko bainatzeko uren kasuan, informazio orokorra honako hauei buruz:

— iraupen laburreko kutsadura eragin dezaketen egoerak,

— kutsadura hori gertatzeko probabilitatea eta izan dezakeen iraupena,

— kutsaduraren arrazoiak, eta kutsadurarekiko bainularien esposizioa saihesteko eta kutsaduraren arrazoiak eteteke harturiko

neurriak.

a) idatz-zatiak aipatzen duen zerrenda urtero izango da eskuragarri, bainu-denboraldia hasi aurretik. b) idatz-zatiak aipatzen dituen kontrolen emaitzak Interneten egongo dira eskuragarri analisiak amaitu ondoren.

3. Lehenengo eta bigarren paragrafoek aipatzen duten informazioa eskuragarri egon bezain laster zabalduko da, 2008ko martxoaren 24aren ondorengo bosgarren bainu-denboraldia hasten denetik.

4. Ahal den guztietan ere, Estatu kideek eta Batzordeak teknologia geoerreferentzialetan oinarrituriko informazioa emango diote jendeari, eta modu argian eta koherentean aurkeztuko dute, batez ere zeinu eta sinboloen erabilierari dagokionez.

#### *13. artikulua*

##### **Txostenak**

1. Estatu kideek Batzordeari helaraziko dizkiote kontrolen emaitzak eta bainu-zona bakoitzerako bainu-uren kalitatearen ebaluazioa, baita harturiko neurri esanguratsuen deskribapen bat ere. Estatu kideek urtero helaraziko dute informazio hori, beranduenez abenduaren 31n, aurreko bainu-denboraldiari buruzkoa, alegia. Lehen aldiz emango dute 4. artikuluari jarraiki bainatzeko uren lehen kalitate-ebaluazioa egiten denean.

2. Estatu kideek urtero jakinaraziko diote Batzordeari, betiere bainu-denboraldia hasi aurretik, bainatzeko ur gisa zehazturiko ur guztiak, aurreko urtearekiko edozein aldaketaren arrazoa adierazita. Estatu kideek informazio hori lehen aldiz helaraziko dute 2008ko martxoaren 24aren ondorengo lehen bainu-denboraldia hasi aurretik.

3. Zuzentarau honen arabera bainatzeko uren kontrola hasten denean, 1. paragrafoaren arabera Batzordeari aurkezturiko informazioa 76/160/EEE Zuzentaruaren arabera lantzen jarraituko da, Zuzentarau honen arabera lehen ebaluazio bat egin artean. Aldi horretan, 76/160/EEE Zuzentaruaren eranskinaren 1. parametroa ez da kontuan hartuko urteko txostenean, eta 76/160/EEE Zuzentaruaren eranskinaren 2. eta 3. parametroak ez dira Zuzentarau honen I. eranskinaren A zutabearen 2. eta 1. parametroen baliokidetzat hartuko.

4. Batzordeak txosten laburbildua argitaratuko du Erkidegoko bainatzeko uren kalitateari buruz, bertan bainu-zonen sailkapenak, Zuzentarau honekin xedatuarekiko adostasuna eta onartu diren kudeaketa-neurri esanguratsuak hartuko dira barnean. Urteroko apirilaren 30ean argitaratuko du txosten hori Batzordeak, baita Interneten bidez ere. Txostena lantzerakoan, Batzordeak albat hobekien erabiliko ditu jasotako datuak eta Erkidegoko dagokion legerian azaltzen diren ebaluazio- eta aurkezpen-

sistemak, batez ere 2000/60/EE Zuzentaraua.

#### **IV. KAPITULUA**

##### **AZKEN XEDAPENAK**

#### *14. artikulua*

##### **Txostena eta berrikustea**

1. Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, beranduenez 2008an. Honako hauei eskainiko die arreta berezia txosten horrek:

a) europar azterlan epidemiologiko baten emaitzak; Batzordeak zuzenduko du Estatu kideen lankidetzarekin;

b) bestelako aurrerapauso zientifiko, analitiko eta epidemiologikoak bainatzeko uren kalitate-parametroetarako, birusen arloa ere barnean hartuta, eta

c) Osasunaren Munduko Erakundearen gomendioak.

2. 2014ko amaiera baino lehen, Estatu kideek Batzordeari aurkeztuko dizkiote haren txostenari idatzitako oharrak, 3. paragrafoaren arabera Zuzentarau hau berrikusteko Batzordeari laguntzeko eska daitekeen edozein ikerketa osagarri edo ebaluazio egiteko premia ere barnean hartuta.

3. Txosten hori, Estatu kideek idatzitako oharrak eta eraginaren ebaluazio zabala ikusita, eta Zuzentarau hau aplikatetik lorturiko esperientzia kontuan izanda, Batzorde horrek 2020an berrikusiko du Zuzentarau hau beranduenez, eta arreta berezia eskainiko die bainatzeko uren kalitatearen parametroei, beharrezkoa izanez gero «nahikoa» sailkapena kenduta edo arau aplikagarriak aldatuta, eta, hala badagokio, legegintzako proposamen egokiak aurkeztuko ditu, Itunaren 251. artikuluari jarraiki.

#### *15. artikulua*

##### **Egokitzapen teknikoak eta aplikazio-neurriak**

1. Honako erabaki hauek hartuko dira, 16. artikulua 2. paragrafoak aipatzen duen prozedurari jarraiki:

a) Metodo mikrobiologikoen baliokidetasunari buruzko EN/ISO araua zehaztea, 3. artikulua 9. paragrafoari dagokionez;

b) 8. artikulua 1. paragrafoa, 12. artikulua 1. paragrafoaren a) idatz-zatia eta 12. artikulua 4. paragrafoa aplikatzeko arau xehatuak ezartzea;

c) Análisi-metodoak I. eranskinaren parametroetarako egokitzea, aurrerabide zientifiko eta teknikoaren arabera;



d) V. eranskina egokitzea aurrerabide zientifiko eta teknikoaren arabera; e) norabideak ezartzea bereizitako laginen ebaluazio-metodo erkide baterako.

2. Lehen paragrafoaren b) idatz-zatiaren arabera hartu beharreko neurrien proiektu bat aurkeztuko du Batzordeak 12. artikulua 1. paragrafoaren a) idatz-zatiari dagokionez, 2010eko martxoaren 24an beranduenez ere. Egin aurretik, Estatu kideen ordezkariak kontsultatuko die, baita eskualdeko eta tokiko agintariei, dagozkien turismoko eta kontsumitzaileen erakundeak eta bestelako alderdi interesdunei ere. Dagozkion arauak onartu ondoren, Interneten argitaratuko ditu Batzordeak.

#### 16. artikulua

##### **Komitea**

1. Batzordeak Komite baten laguntza izango du.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa ikusita.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikulua 6. paragrafoan bilduriko epea hiru hilabetekoa izango da.

3. Komiteak onartuko du bere barne-erregelamendua.

#### 17. artikulua

##### **Indargabetzea**

1. 76/160/EEE Zuzentaraua 2014ko abenduaren 31tik aurrera indargabetuko da. 2. paragrafoa aparte utzi gabe, Estatu kideek indargabeturiko Zuzentaruak ezartzen duen barruko eta aplikazioko Zuzenbidea jasotzeko epeei dagokienez dituzten betebeharrak aparte utzi gabe izango da indargabetze hori.

2. Estatu kideek Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren neurri legalak, administratiboak eta praktikoak hartu bezain laster, Zuzentarau hori aplikagarria izango da eta 76/160/EEE Zuzentaraua ordeztuko du.

3. Indargabeturiko 76/160/EEE Zuzentaruarekiko erreferentziak Zuzentarau honi eginikotzat hartuko dira kontuan.

#### 18. artikulua

##### **Aplikazioa**

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen legalak, araukoak eta administratiboak, beranduenez 2008ko martxoaren 24an. Berehala emango diote horren berri Batzordeari.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, Zuzentarau honen erreferentzia bat bilduko dute xedapen horiek edo erreferentzia horrekin batera agertuko dira haren argitalpen ofizialean. Erreferentzia horren modalitateak ezarriko dituzte Estatu kideek.

2. Estatu kideek jakinaraziko diote Batzordeari Zuzentarau honek arauturiko esparruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarriko xedapenen testua.

#### 19. artikulua

##### **Indarrean jartzea**

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

#### 20. artikulua

##### **Hartzaileak**

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko otsailaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,  
Presidentea  
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,  
Presidentea  
H. WINKLER



I. ERANSKINA

Ur kontinentalak

	A	B	C	D	E
	Parametroa	Kalitate bikaina	Kalitate ona	Kalitate nahikoa	Erreferentzia zko analisi-metodoak
1	Heste-enterokokoak (UFC/100 ml)	200 (*)	400 (*)	330 (**)	ISO 7899-1 o ISO 7899-2
2	Escherichia coli (UFC/100 ml)	500 (*)	1 000 (*)	900 (**)	ISO 9308-3 o ISO 9308-1
(*) 95 perzentilaren ebaluazioaren arabera. Ikus II. eranskina. (*) 90 perzentilaren ebaluazioaren arabera. Ikus II. eranskina.					

Kostaldeko eta trantsizioko urak

	A	B	C	D	E
	Parametroa	Kalitate bikaina	Kalitate ona	Kalitate nahikoa	Erreferentzia zko analisi-metodoak
1	Heste-enterokokoak (UFC/100 ml)	100 (*)	200 (*)	185 (**)	ISO 7899-1 o ISO 7899-2
2	Escherichia coli (UFC/100 ml)	250 (*)	500 (*)	500 (**)	ISO 9308-3 o ISO 9308-1
(*) 95 perzentilaren ebaluazioaren arabera. Ikus II. eranskina. (*) 90 perzentilaren ebaluazioaren arabera. Ikus II. eranskina.					

## II. ERANSKINA

### **Bainatzeko uren ebaluazioa eta sailkapena**

#### **1. Kalitate gutxiegia**

Bainatzeko urak kalitate «gutxiegi»kotzat sailkatuko dira, baldin eta azken ebaluazioaldiari (a) dagozkion urak bainatzeko kalitateari buruzko datu sortan enumerazio biologikoaren pertzentilaren (b) balioak okerragoak badira (c) I. eranskinaren D zutabean agertzen diren «kalitate nahiko»aren balioak baino.

#### **2. Kalitate nahikoa**

Bainatzeko urak kalitate «nahiko»kotzat sailkatuko dira:

1) azken ebaluazioaldiari buruzko bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortari gagozkiola, enumerazio mikrobiologikoen pertzentilaren balioak berdinak edo hobeak (d) badira I. eranskinaren D zutabean agertzen diren «kalitate nahiko»aren balioak baino, eta

2) bainatzeko urak iraupen laburreko kutsadurarekiko esposiziopean badaude, baldin eta betiere:

i) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira —zaintza, alerta bizkorreko sistemak eta kontrolak barne— bainularien esposizioa saihesteko, ohar baten bidez edo, beharrezkoa denean, bainatzeko debeku baten bidez,

iii) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira, kutsadura-arrazoiak prebenitu, murriztu edo ezabatzeke, eta

iii) 3. artikulua 6. paragrafoaren arabera bazterturiko laginen kopurua —betiere azken ebaluazioaldian izandako iraupen laburreko kutsadura batek eraginda— aldi horretarako finkaturiko kontrol-egutegietan aurreikusitako laginen guztirako kopuruaren %15 baino gehiago ez bada, edo lagin bat baino gehiago ez bada bainu-denboraldi bakoitzeko, betiere balio altuena kontuan izanda.

#### **3. Kalitate ona**

Bainatzeko urak kalitate «on»ekotzat sailkatuko dira:

1) azken ebaluazioaldiari buruzko bainatzeko uren kalitatearen inguruko datu sortari gagozkiola, enumerazio mikrobiologikoen pertzentilaren balioak berdinak edo hobeak (d) badira I. eranskinaren C zutabean agertzen diren «kalitate on»aren balioak baino, eta

2) bainatzeko urak iraupen laburreko kutsadurarekiko esposiziopean badaude, baldin eta betiere:

i) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira —zaintza, alerta bizkorreko sistemak eta kontrolak barne— bainularien esposizioa saihesteko, ohar baten bidez edo, beharrezkoa denean, bainatzeko debeku baten bidez,

iii) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira, kutsadura-arrazoiak prebenitu, murriztu edo ezabatzeke, eta

iii) 3. artikulua 6. paragrafoaren arabera bazterturiko laginen kopurua —betiere azken ebaluazioaldian izandako iraupen laburreko kutsadura batek eraginda— aldi horretarako finkaturiko kontrol-egutegietan aurreikusitako laginen guztirako kopuruaren %15 baino gehiago ez bada, edo lagin bat baino gehiago ez bada bainu-denboraldi bakoitzeko, betiere balio altuena kontuan izanda.

#### **4. Kalitate bikaina**

Bainatzeko urak kalitate «bikain»ekotzat sailkatuko dira:

1) azken ebaluazioaldiari buruzko bainatzeko uren kalitatearen inguruko datu sortari gagozkiola, enumerazio mikrobiologikoen pertzentilaren balioak berdinak edo hobeak (d) badira I. eranskinaren B zutabean agertzen diren «kalitate bikain»aren balioak baino, eta

2) bainatzeko urak iraupen laburreko kutsadurarekiko esposiziopean badaude, baldin eta betiere:

i) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira —zaintza, alerta bizkorreko sistemak eta kontrolak barne— bainularien esposizioa saihesteko, ohar baten bidez edo, beharrezkoa denean, bainatzeko debeku baten bidez,

iii) kudeaketa-neurri egokiak hartzen badira, kutsadura-arrazoiak prebenitu, murriztu edo ezabatzeke, eta

iii) 3. artikulua 6. paragrafoaren arabera bazterturiko laginen kopurua —betiere azken ebaluazioaldian izandako iraupen laburreko kutsadura batek eraginda— aldi horretarako finkaturiko kontrol-egutegietan aurreikusitako laginen guztirako kopuruaren %15 baino gehiago ez bada, edo lagin bat baino gehiago ez bada bainu-denboraldi bakoitzeko, betiere balio altuena kontuan izanda.

**OHARRAK**

(a) Honako hau hartzen da «azken ebaluazioaldi»tzat: azken lau bainu-denboraldiak edo, hala badagokio, 4. artikularen 2. edo 4. paragrafoetan zehazturiko aldia.

(b) Bainatzeko ur jakin batzuetan lorturiko datu mikrobiologikoen log10 probabilitate-dentsitateko funtzio normalaren pertzentilaren ebaluaziotik abiatuta, honela ondorioztatzen da pertzentilaren balioa:

i) hartu ebaluaturiko sekuentziaren enumerazio bakteriano guztien log10 balioa. (Zero balio bat lortuz gero, hartu erabilitako metodo analitikoaren detekzioko gutxieneko mugako log10 balioa haren ordez),

ii) kalkulatu log10 balioen (i) batez besteko aritmetikoa,

ii) kalkulatu log10 balioen (ó) desbideratze tipikoa.

Datuen probabilitate-dentsitateko funtzioaren pertzentil 90aren puntu gorena honako ekuazio honetatik ondorioztatuko da: pertzentil 90aren puntu gorena = antilog (i + 1,282 ó).

Datuen probabilitate-dentsitateko funtzioaren pertzentil 90aren puntu gorena honako ekuazio honetatik ondorioztatuko da: pertzentil 90aren puntu gorena = antilog (i +1,65 ó).

(c) «Okerrago»k esan nahi du UFC/100 ml-tan adierazitako haren kontzentrazioak handigoak direla.

(c) «Hobe»k esan nahi du UFC/100 ml-tan adierazitako haren kontzentrazioak txikiagoak direla.

**III. ERANSKINA**

**Bainatzeko uren profila**

1. Honako hauetan datza 6. artikulua aipatzen duen bainatzeko uren profila:

a) bainatzeko uren ezaugarri fisikoen, geografikoen eta hidrokologikoen deskribapen bat, baita dagozkion bainatzeko uren arro hidrografikoko azaleko bestelako urena ere, kutsadura-iturri izan balitezke, betiere egokiak badira Zuzentarau honi dagokionez eta 2000/60/EE Zuzentaraan bilduta badaude.

b) bainatzeko urak eta bainularien osasuna eraginpean har ditzaketen kutsadura-arrazoiak zehaztu eta ebaluatzea;

c) zianobakterioak ugaltzeko joera ebaluatzea;

d) makroalgak edo fitoplanktona ugaltzeko joera ebaluatzea;

e) ebaluazioa b) idatz-zatiaren arabera izanik iraupen laburreko kutsadura-arriskua badu, honako informazio hau:

— espero den kutsaduraren aurreikus daitezkeen nondik norakoa, maiztasuna eta iraupena,

— kutsadurako edozein hondar-arrazoiren xehetasunak, harturiko kudeaketa-neurriak eta kutsadura ezabatzeko egutegia adierazita,

— iraupen laburreko kutsadura batean harturiko neurriak, baita neurri horiek eragin dituzten organismoen izaera eta ezaugarriak ere;

f) kontrol-puntuaren kokapena.

2. Kalitate «on»eko, «nahiko»ko edo «gutxiegi»ko gisa sailkatutako bainatzeko uren kasuan, aldi behin aztertu beharko da bainatzeko uren profila 1. puntuan azaltzen den alderdietakoren bat aldatu ote den ebaluatzeko. Beharrezkoa izanez gero, eguneratu egin beharko da. Kutsaduraren nolakotasunaren eta larritasunaren arabera zehaztuko da berrikustearren maiztasuna eta nondik norakoa. Dena den, berrikustea ondoren agertzen den koadroaren xedapenak bildu beharko ditu gutxienez, eta koadro horretan finkaturiko maiztasunarekin izan beharko du gutxienez.

	«Ona»	«Nahikoa»	«Gutxiagia»
Bainatzeko uren kalitatearen sailkapena			
Berrikustea egin beharko dira	4 urtean behin	3 urtean behin	2 urtean behin
Berrikusi beharreko alderdiak (1. puntuko letrak)	a) eta f) bitarte	a) eta f) bitarte	a) eta f) bitarte

Lehen kalitate «bikain»ekotzat sailkatuta izan diren bainatzeko uren kasuan, bainatzeko uren profila berrikusi beharko da, eta, beharrezkoa izanez gero, eguneratu, betiere sailkapen hori kalitate «on», «nahiko» edo «gutxiegi»ra aldatzen bada. 1. puntuari aipaturiko alderdi guztiak bildu beharko ditu berrikustea.

3. Bainu-zona baten azpiegiturretan edo inguruetan obra edo aldaketa garrantzitsuak egin badira, bainatzeko uren profila eguneratu beharko da hurrengo bainu-denboraldia hasi baino lehen.

4. Lehen puntuaren a) eta b) idatz-zatietan aipaturiko datuen mapa xehatu batean eman beharko dira, ahal izanez gero.

5. Bestelako informazio egokirik erantsi edo barnean hartu ahalko da agintaritza eskudunak egoki irizten badio.

#### IV. ERANSKINA

##### **Bainatzeko uren kontrola**

1. Bainu-denboraldi bakoitza hasi baino pixka bat lehenago hartuko da lagin bat. Gutxienez lau lagin hartu beharko dira bainu-denboraldi bakoitzeko, lagin gehigarri hori barnean hartuta, eta betiere 2. puntuaren aplikazioa aparte utzi gabe.

2. Dena dela, urtean hiru lagin baino ez dira hartu eta aztertu beharko honako kasu hauetan:

a) gehienez 8 asteko bainu-denboraldi bat badute, edo

b) muga geografiko bereziak dituen eskualde batean badaude.

3. Bainu-denboraldi osoan zehar banatu beharko dira laginketa-egunak, eta horien arteko tartek hilabetekoa behar du izan gehienez ere.

4. Iraupen laburreko kutsaduraren kasuan, lagin gehigarri bat hartuko da gorabehera amaituta dagoela baieztatzeko. Lagin hori ez da bainatzeko uren kalitateari buruzko datu sortan bilduko. Bazterturiko lagin bat ordeztu behar bada, lagin gehigarri bat hartuko da iraupen laburreko kutsadura amaitu eta zazpi egun ondoren.

#### V. ERANSKINA

##### **Analisi mikrobiologikoetarako laginak manipulatzeari buruzko arauak**

###### **1. Laginketa-puntua**

Ahal dela, uraren azaleraren 30 cm azpitik hartuko dira laginak, eta betiere gutxienez 1 m-ko sakonera duten uretan.

###### **2. Laginen ontzien esterilizazioa**

Laginen ontzietan dagokienez:

— esterilizaziopean egongo dira autoklabean, gutxienez 15 minutuan eta 121°C-tan, edo

— esterilizaziopean egongo dira lehorrean, gutxienez ordubetean eta 160-170 °C-ko tenperaturan, edo

— laginetarako ontziak izango dira, fabrikatzaileak zuzenean irradiaturikoak.

###### **3. Laginketa**

Parametro bakoitzaren analisirako beharrezko den ur kantitatearen baitan egongo da ontziaren bolumena. Gutxienezko edukiera 250 ml izango da oro har.

Laginetarako ontzietan gardenak eta koloregabeak beharko dute izan (zuntzezkoak, polietilenoak edo polipropilenoak).

Laginen ezbeharrezko kutsadura saiheste aldera, laginak lortzen dituen pertsonak teknika aseptikoak erabiliko dituzte laginketa-ontzien esterilitatea atxikitzeko. Ez da bestelako ekipa esterilik beharko (hala nola eskularru kirurgiko esterilak, pintzak edo hagatxoak) egokiro jardunez gero.

Laginak argi eta garbi identifikatu beharko dira tinta ezabaezinarekin laginean eta laginaren formularioan.

###### **4. Laginak biltegitratzea eta garraiatzea haiek aztertu aurretik**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Argiarekiko esposiziotik babestu behar dira uraren laginak, batez ere zuzeneko eguzki-argiarekiko, garraioaren fase guztietan.

Laginak gutxi gorabehera 4 °C-ko tenperaturan gorde beharko dira, kutxa termiko batean edo hozkailu batean (klimaren arabera), laborategira iristen diren arte. Hozkailu batean garraiatu beharko dira laborategirainoko garraioak 4 orduetik gora iraungo duela aurreikusten bada.

Laginak hartzearen eta haien analisiaren denbora-tarteak al bait laburrena izan behar du. Analisia laginak lortzen diren astegun berean egitea komeni da. Arrazoi praktikoak direla-eta hori ezinezkoa bada, gehienez ere 24 orduko epean prozesatu beharko dira laginak. Bien bitartean, iluntasunean eta 4 °C ± 3 °C-ko tenperaturan gordeko dira.